



Zumaiako Musika Jaialdia

Uztailak 30-abuztuak 11

Alkatearen agurra

Beste urte betez heldu da Zumaiako Musika Jaialdia eta horri esker, 15 egunetan zehar, uztailaren 30etik abuztuaren 11 arte, hain zuzen, gure egunerokotasuna piztu, girotu eta alaituko duten musika doinuak entzun ahal izango ditugu non-nahi gure herrian.

Ez dago zalantzarik urteen poderioz Musika Jaialdia udako ikur nagusienetarikoa bilakatu dela, ez baititugu alferrik, aurtengoarekin, 34 edizio ospatu dagoeneko! Urtetik urtera kalitatezko musikari ezberdinekin kontatzeko aukera izaten dugu, baita horien musika zuoi, zumaiarro, eskaintzekoa ere eta hori horrela izan dadin, Udalak eta bereziki Kultura sailak gogor lan egiten du urte osoan zehar aurkezten zaizuen egitaraua zuen gustukoa izan dadin.

Aurtengo programaren kasuan, gainerako guztietan bezala, musika klasikoa ardatz izan arren, estilo desberdinak entzun eta ikuskizun ugari ikusteko aukera izango duzue: dantza, hurrei zuzenduriko emanaldiak, abesbatzen ekitaldiak...

Beste behin, beraz, musikaz eta giro ezin hobez gozatzeko aukera paregabea eskainiko digu Musika Jaialdiak, horrenbestez, gehiago luzatu gabe, eman diezaigun hasiera Zumaiako Musikaldiari!

Saludo del alcalde:

Otro año más, ya está aquí el Festival de Música de Zumaia que durante 15 días, concretamente desde el 30 de julio al 11 de agosto, inundará nuestras calles, ambientando y alegrando así, nuestro día a día.

No cabe duda de que con el paso de los años, el Festival de Música se ha convertido en uno de los eventos más importantes de la agenda estival y es que ¡no en vano hemos celebrado ya 34 ediciones! Cada año gozamos de la oportunidad de poder contar con músicos de gran calidad y a su vez, de poder ofrecerlos su música a todas y todos vosotros. No obstante, para que todo ello sea posible, el Ayuntamiento y en especial el departamento de cultura trabaja duro durante todo el año para que la programación presentada sea de vuestro agrado.

Como cada año, el festival girará en torno a la música clásica pero también tendremos la oportunidad de escuchar distintos estilos de música y disfrutar de diversos espectáculos: baile, eventos infantiles, corales...

Sin más dilación, ¡que suene la música y a disfrutar!

34

2018

ZUMAIAKO MUSIKA JAIALDIA

UZTAILA

30 ASTELEHENA

19:30 Aita Mari
Opera Sydneytik: *Aida*

31 ASTEARTEA

20:00 Oxford aretoa
Lez klarinete laukotea

ABUZTUA

1 ASTEAZKENA

20:30 Parrokia
San Pedro Abesbatza

2 OSTEGUNA

20:00 Aita Mari
Bazzque World Sounds
Khami

3 OSTIRALA

11:00 Oxford aretoa
Donostiako Musika Hamabostaldia
Haurrentzako tailerra
Materia, Maushaus

18:30 Mari kalea
Donostiako Musika Hamabostaldia
Ezberdin bezain eder
Kantu kontari

20:30 Parrokia
Organo kontzertua
J. M. Beobide gogoratuz

5 IGANDEA

20:00 Maria eta Joseko Aretoa
Sapere Aude Sinfonietta in Concert
Zuzendaria: Fernando Velázquez

Concierto de Aranjuez, Joaquín Rodrigo
7. Sinfonia, L. Van Beethoven

6 ASTELEHENA

22:00 Oxford aretoa
Zinea + musika
Iñar Sastre: *City Girl*, F.W. Murnau

7 ASTEARTEA

20:00 Oxford aretoa
Argentina en mi guitarra, Juan Falú

8 ASTEAZKENA

20:30 Parrokia
Donostiako Musika Hamabostaldia
Italia 1600, Raquel Andueza & La Galanía

9 OSTEGUNA

12:30 Mari kalea
Faroese Clarinet Choir eta Faroese Saxophone Choir

20:00 Odieta dantza
Meeting Point, Ertza

11 LARUNBATA

20:00 Amaiako plazan hasita dantza
Growing Young - Une, Dantzaz




Zumaia Udalak



Eman diezaiozun hasiera jaialdiari!

Uztailak 30 astelehena

19:30ean Aita Marin



Opera Sydneitik: Aida

- **MUSIKA ZUZENDARIA:** Brian Castles-Onion
- **ESZENA ZUZENDARIA:** Gale Edwards
- **AIDA:** Latonia Moore
- **RADAMES:** Walter Fraccard
- **AMNERIS:** Milijana Nikolic
- **AMONASRO:** Michael Honeyman

Sydneiko portuko “Handa Opera” konpainia oinarrizko pieza bilakatu da nazioarteko paisai kulturalaren baitan. Konpainia horrek Sydneiko bertute guztiak batzen ditu: lehen mailako opera, xanpaina, ilunabarrak eta portuko giro epela...

Aida bezalako ekoizpen handi bat aurrera eramateak, ordea, lan handia suposatzen du, obra hori baita, eszenatoki baten gainean inoiz egin den opera muntaiarik handiena. Guztira 700 lagun baino gehiagok hartzen dute parte eta dekoratu eta eszenografiaren atzean, gudu eszena zein antzinako tenpluen atzean, emozioz beteriko antzezlan da nagusi.

Su artifizialak zeruan itzali eta Amnerisek obrari amaiera ematen dion kantua abestu ondoren, ikusleak antzezlanaren benetako balioa hauteman ahal izango du: Aida epopeia historikoa da, tragedia bat, zatiezina den obra bat, alegia.

Handa Opera en el puerto de Sydney se ha convertido en una pieza fundamental del paisaje cultural internacional. Es el resultado de combinar todas las virtudes de Sydney; la ópera de primer nivel, champán, la buena mesa, puestas de sol....

Una producción de estas características es una tarea monumental, que necesita el trabajo de un equipo de más de 700 personas involucradas en el proyecto antes de que una sola nota se escuche sobre el puerto.



Aida es el montaje más grande de ópera que han realizado nunca en un escenario. Pero en el centro de todo este montaje, detrás de la famosa 'Marcha Triunfal', las escenas de batalla y templos antiguos, late un corazón, profundamente, emocional. Mucho después de que los fuegos artificiales se hayan desvanecido en el cielo y Amneris haya cantado su tranquila oración conclusiva, el espectador podrá percibir la verdadera importancia de esta ópera en toda su dimensión: una epopeya histórica y una tragedia humana, formando un todo indivisible.

Uztailak 31 asteartea

20:00etan Oxford aretoan

Lez klarinete laukotea: XVI Klarinete Maratoiko irabazleak

MUSIKARIAK:

- Malen Trenado
- Andone Martiarena
- Nahikari Martin
- Ohian Espina



Abuztuak 1 asteazkena

20:30ean Parrokian

San Pedro abesbatza



Zumaiako parrokia-korutik eratorria, San Pedro abesbatza 1984an sortu zen. Geroztik, musika-estilo ugari landu ditu Euskal Herrian zein gure mugetatik kanpo eskaini dituen kontzertuetan ere. Herriko ondare musikala berreskuratu eta zabaltzeko asmoa du, baita gaur egungo euskal musikagileen lanak ezagutaraztekoa ere. Honen adierazle da Zumaiako Udal Musika Bandarekin batera 2013an grabaturiko *Suite* diskoa.

2009an, abesbatza federatuen mailako lehen saria irabazi zuen Erreterian jokatu zen Gabon Abestien LXIII. Lehiaketa Probintzian. 2012an Tolosako Topaketa Jaialdian parte hartu zuen. 2016an Sapere Aude Sinfonietarekin bat egin zuen Algortan eta Zumaian kontzertuak eskaintzeko Fernando Velazquezen zuzendaritzapean. Gaur egun Amaia Aldalurren zuzendaritzapean lan egiten du koruak.

Fundado en 1984 a partir del coro parroquial de Zumaia, San Pedro Abesbatza canta diferentes estilos musicales y ha ofrecido multitud de conciertos tanto en Euskal Herria como fuera de nuestras fronteras. Uno de sus objetivos es la recuperación y la difusión del patrimonio musical de Zumaia. Asimismo, presta especial atención a la música de los compositores vascos actuales. Muestra de ello es el disco "Suite" grabado junto a Zumaiako Udal Musika Banda.

Recibió el primer premio de la categoría de agrupaciones federadas en el LXIII Certamen Provincial de Canciones Navideñas celebrado en Erreteria en 2009. El año 2012 participó en el prestigioso Topaketa de Tolosa. Durante el 2016 ofreció conciertos junto a Sapere Aude Sinfonietta bajo la dirección de Fernando Velázquez. Actualmente el coro realiza su labor bajo la dirección de Amaia Aldalur.

Egitarauaren hitzaurrea / Prólogo

Abestea gizakiak erraieran daraman zerbait da, ziurrenik musika egiteko aurkitu zuen lehen bidea baita. Askotan erabili dugu musika eta ahotsa gure nahiak eta sentimenduak adierazteko. Horregatik kontzertu honetan estilo ezberdinetako musika motak eskaini nahi ditugu.

Doinu sinpleak apaintzeko asmoz sortu zen abesbatzen musika. Elizan izan zuen abiapuntua baina ez zen horma horien barruan geratu. Aspaldiko zein gaur egungo musikariek abestiak sortu dituzte hizkuntza ezberdinetan, itsasoaren bi aldeetan, ahots hutsez edota musika tresnen laguntzaz abestuak izateko. Natura eta maitasuna izan dira askotan inspirazioaren abiapuntu, herriaren sustraietatik ateratako musika ere moldatua izan da eta askotan musika hau ez galtzeko modua izan da.

Eskaini nahi dizuegun egitarauan guzti honen adibideak izango dituzue, Zumaian jaiotako Angel Embil eta Jose Maria Beobideren musika, Javier Busto eta David Azurza bezalako gaur egungo musikariaren moldaketak eta nazioarteko egileen lanak, Morten Lauridsen edo Carlos Guastavinoenak adibidez.

El canto es algo que el ser humano lleva en sus entrañas y puede que fuera la primera forma que tuvo de hacer música. En muchas ocasiones se ha utilizado para mostrar nuestros sentimientos y nuestros deseos. Por ello, en este concierto queremos ofrecer música de estilos muy diversos.

La música coral se creó para embellecer simples melodías. Se creó dentro de la iglesia pero con el paso de los años ha ido creciendo. Músicos de diversas épocas y procedencias han creado multitud de obras en distintas lenguas, tanto para ser interpretadas a capella como con acompañamiento instrumental. La naturaleza y el amor han sido, en multitud de ocasiones, el origen de la inspiración, en otras ocasiones, en cambio, han sido las melodías de raíz popular las que han servido de base para crear arreglos corales, siendo ésta una forma para conseguir que pervivieran.

En el programa que os queremos ofrecer encontrareis ejemplos de todo lo citado: música de autores de Zumaia como Ángel Embil y José María Beobide, canciones populares armonizadas por músicos con Javier Busto y David Azurza, u obras creadas por autores internacionales como Morten Lauridsen o Carlos Guastavino.

Egitaraua / Programa

- O bone Jesu *J. Antxieta (1496-1523)*
- Ave Maria *J. Dominguez (1965)*
- Ama Eder *J.M. Beobide (1882-1967)*
- Cantate Domino *V. Miškinis (1954)*
- Se me quebraron los remos *A. Embil (1897-1980)*
- Ez nau izitzen elhurrak *Harm: J. Busto (1949)*
- Dirait on "Les Chancons des roses" *M. Lauridsen (1943)*
- Loriau udan *Harm: D. Azurza (1968)*
- Xoxo beltz bat banuen *Harm: K. Gimenez*
- Sure on this shining night *M. Lauridsen (1943)*
- Alfonsina y el mar *A. Ramirez (1921-2010)*
- Indianas *C. Guastavino (1912-2000)*
- Quién fuera como el jazmín...
- Gala del día

Pianoa: Mari Carmen Azpeitia Iparragirre

Zuzendaria: Amaia Aldalur Goikoetxea

Abuztuak 2 osteguna

20:00etan Aita Marin

Bazzque World Sounds, Khami



MUSIKARIAK

- Iraide Ansorena (Perkusioa)
- Carlos Sagi (Bateria eta zuzendaritza musikala)
- Garikoitz Mendizabal (txistuak eta alboka)
- Ander Garcia (Baxua/kontrabaxua)
- Gari Otamendi (Dantza)
- Iñaki Salvador (pianoa)

Iraide Ansorenak eta Carlos Sagik sortutako Khami taldea, garrantzia eta maila handiko euskal artisten topagune gisa sortu zen. Euskal kultura herrikoia bilaketa lana egiten du Khamik, munduko beste zenbait folklorerekin dituen parekotasunak aurkituz.

Udaberrian bigarren lana argitaratu dute, *Mugak* deiturikoa, Kalakan hirukotearekin elkarlanean, baina Zumaiara euskal txistuarentzat mugarri izandako lehen lanarekin datoz: *Bazzque World Sounds* (2015) diskoak inoiz ezagutu gabeko erregistro musikal berri batean kokatu zuen txistua, instrumentuaren aukera musikalak erabat berrituz.

Khami kolektiboan biltzen diren artistak askotarikoak dira jatorri eta adinari begira, eta ibilbide luze eta aberatsak dituzte guztiek. Euren proiektuetan estatu eta nazioarte mailako artista eta talde esanguratsuekin lan egin dute: Perico Sambeat, Carlos Nuñez, Michel Camilo, Jorge Pardo, Mikel Laboa, Kepa Junkera, Aaron Goldberg, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Galiziako Orkestra Sinfonikoa edo San Petersburgoko Orkestra, gutxi batzuk aipatzearren.

Khami, el proyecto que desde 2015 aúna a excelentes músicos vascos de varias generaciones y trayectorias muy diversas, explora con total libertad algunas de las señas de identidad más enraizadas y auténticas de la cultura popular euskaldun, buscando los paralelismos y la mezcla premeditada con otras expresiones folklóricas del planeta. En este concierto presentan Bazzque World Sounds, trabajo con el que llevaron al txistu a registros musicales hasta entonces inexplorados por este instrumento tradicional.

El colectivo Khami reúne artistas muy diferentes en cuanto a origen y edad y todas y todos ellos tienen una gran trayectoria y carrera musical, en la cual han trabajado con artistas y grupos de nivel nacional e internacional: Perico Sambeat, Carlos Nuñez, Michel Camilo, Jorge Pardo, Mikel Laboa, Kepa Junkera, Aaron Goldberg, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Galiziako Orkestra Sinfonikoa o San Petersburgoko Orkestra, entre otros.

Abuztuak 3 ostirala

Donostiako Musika

Hamabostaldia

1. 11:00etan Oxford aretoan

Materia haurrentzako tailerra: Maushaus



EGITARAUA:

- Elebitan
- Iraupena: 80´
- 5-11 urte

Tailer hau bitarteko dela, aurtengo Musika Hamabostaldiak irudi izango duen kartel koloretsuaren egileari, Juan Luis Goenaga margolariari, omenaldia eskainiko zaio. Intuitiboki, taldean egingo den margoa zimendu lodietan enpastatutako sustantziekin egingo da, lurretik hartutako pigmentuekin eta euri-tantak, airea, sua, belarra adaxkak edo sustraiak gogorarazten dituzten koloreak enplegatuz.

Sarrerak mugatuak direnez, ekitaldi honetan parte hartzeko beharrezkoa da aldezturik izena ematea.

Oharrak:

- Lagun bakoitzak gehinez lau adin txikikoen izena eman dezake.
- Heldu bakoitzeko, adin txikiko bat onartuko da, publiko guztientzat diren saioetan.

Izena emateko: <https://www.quincenamusal.eus/eu/egitaraua/ikuskizuna/e/materia>

Con este taller brindaremos homenaje a la obra del pintor Juan Luis Goenaga, autor del colorista cartel de la Quincena Musical de este año. De una manera intuitiva, nuestra pintura colectiva se expresará con sustancias empastadas sobre bases densas, con pigmentos tierra y colores que recuerden a gotas, aire, fuego, hierba, ramas o raíces.

Al ser un evento de plazas limitadas, es necesario realizar la inscripción previa.

Notas:

- *Cada persona podrá inscribir como máximo a 4 menores*
- *Se admitirá un máximo de 1 adulto por menor, en las actividades dirigidas a todos los públicos.*

2. 18:30ean Mari Kalean

Ezberdin bezain Eder, Kantu Kontari



INTERPRETATZAILEAK

- Nerea Ariznabarreta: ipuin kontalaria
- Mariano Hurtado: musikaria

EGITARAUA

- 3-10 urte
- Iraupena: 60´

Kantu kontari formatu txikiko ikuskizun bat da, non ipuinak eta musika uztartzen diren. 3 eta 10 urte arteko neska-mutilei zuzendutako ekimen honek, musika eta ipuinak bitarteko direla, entzuteko gaitasuna garatzea du helburu nagusi.

Kantu kontari es un espectáculo de pequeño formato protagonizado por una cuentacuentos y acompañamiento musical. Pensado para niñas y niños y sus familias de entre 3 y 10 años, pretende desarrollar la capacidad de escucha a través de la música y los cuentos.

3. 20:30ean Parrokian

Jose Maria Beobide gogoratzuz: organo kontzertua



1882ko azaroaren 25ean jaio zen Jose Maria Beobide Zumaian. Bere anaia Julioaren modura arteen bidea hartu zuen baina lehenak eskulturaren bidea hartu bazuen Jose Maria Beobidek musikaren bideari ekin zion gaztetatik.

Anaia Julio bere jaioterrian errotu eta bertatik lan egin zuen bezala, Jose Maria Beobidek ia bizitza gehiena kanpoan eman zuen. Agian horregatik ez da hain ezaguna gure herrian eta kontzertu honen helburu nagusia bere musika aurkeztea da.

Musikan lehen pausuak Antonio Trueba musikagilearekin eman zituen eta ondoren Samaniegorekin Iruñan eta Madrilgo Kontserbatorioan zabaldu zituen. Lehen lanpostua, jesuitei esker, Ekuadorreko hiriburuan, Quiton, lortu zuen organo-jole eta musika irakasle gisa. Bi lan hauek uztartuko zituen bere bizitza osoan zehar. Quitoko garaierak kalte egiten zionez, handik New Yorkera joan zen, egonaldi honi esker lehen lanak argitaratzeko aukera

izan zuelarik.

Barakaldon eta El Escorial-en lan egin ondoren Burgosera joan zen, bertako La Merced Eskolan lan egitera. Bere bizitzan aldaketak ekarri zituen egonaldia izan zen: bertan ezkondu eta seme-alabak izan zituen. Oposaketan bitartez Irakasle Eskoletako Musika plaza lortu zuen eta Iruñara joan zen bizitzera bere familiarekin. Bertan hainbat lan egin

zituen, Iruñako Orfeoiaren bigarren zuzendari lana adibidez. 76 urterekin erretiroa hartu eta Burgosera joan zen eta bertan zenduko zen 1967an.

Jose María Beobide nació en Zumaia el 25 de noviembre de 1882. Al igual que su hermano Julio, escogió el camino de las artes pero si bien el primero orientó su carrera al mundo de la escultura, Jose María Beobide optó por la música.

A pesar de que su hermano Julio desempeñó su carrera artística en su municipio natal, Jose María vivió gran parte de su vida fuera de Zumaia. Tal vez por eso no es tan conocido en el municipio, por lo que, mediante este concierto el principal objetivo es dar a conocer su música a todas y todos sus conciudadanos.

Dio los primeros pasos en la música de manos del músico Antonio Trueba y después amplió sus estudios con Samaniego en Pamplona y en el Conservatorio de Madrid. Consiguió su primer trabajo, gracias a los jesuitas, en la capital de Ecuador, Quito, como organista y profesor de música. Compaginó ambos trabajos durante toda su vida. Desde Quito se mudó a Nueva York donde tuvo la primera oportunidad de publicar sus propios trabajos.

Tras trabajar en Barakaldo y El Escorial, se trasladó a Burgos, a la Escuela La Merced. Esta estancia trajo varios cambios en su vida, ya que en esta etapa en Burgos fue cuando se casó y tuvo hijos. Mediante un proceso de oposiciones logró su plaza como profesor de música y se mudó a Pamplona con su familia. Allí desempeñó diversos trabajos; fue segundo director del Orfeón de Pamplona, entre otros. Con 76 años se retiró de su carrera musical y se marchó a Burgos, donde falleció en 1967.

Organisten curriculum-ak / CV de los organistas

Mari Carmen Azpeitia

Piano eta organo ikasketak Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin zituen Rosa Maria Zarate eta José Antonio Medina Labrada irakasleekin, eta Esteban Elizondorekin hain zuzen. Kontzertu ugari eskaini ditu, bai bakarlari moduan eta baita hainbat abesbatzari lagunduz.

Realizó estudios superiores de piano y de órgano en el Conservatorio Superior de San Sebastián con Rosa María Zárate y José Antonio Medina Labrada, y con Esteban Elizondo respectivamente. Ha ofrecido diversos conciertos tanto como solista como acompañando a coros.

Iker Gonzalez

Euskal Herriko Unibertsitatetik Kimikan doktorea. Musika ikasketak bere ama den Miren Tere Cobeagarekin hasi zituen. Asentxio Elustondorekin harmoniaren oinarriak ikasi eta hortik aurrera prestaketa oro har autodidakta izan du, Martin Zalba musikagilearekin oinarriak zabaldu baditu ere.

Doctor en Química por la Universidad del País Vasco, comenzó sus estudios musicales con su madre Miren Tere Cobeaga. Tras recibir los fundamentos de la armonía de manos de Asentxio Elustondo, ha sido prácticamente autodidacta, si bien ha profundizado sus conocimientos con el compositor Martín Zalba.

Santiago Banda

Txikitatik pianoarekin hasi ondoren, organoa eta klabezina ikasi zituen. Klabezin ikasketak Jaques Ogg-ekin amaitu zituen eta nazioarteko irakasleekin sakontzen dabil. Organo

ikastaroak egin ditu Jon Laukvikekin, Zumaiaiko Udalak eta Enrique Lartundo Fundazioak lagunduta. Kontzertuak emateaz gain, grabazioak egin ditu BOS eta OCNErekin.

Desde la infancia ha estudiado piano, órgano y clavecín, con grandes maestros como Jaques Ogg. Entre los cursos internacionales para ampliar su formación, destacan los de órgano con Jon Laukvik, becado por el Ayuntamiento de Zumaia y la Fundación Enrique Lartundo. Además de ofrecer numerosos conciertos ha realizado grabaciones con la BOS y la OCNE.

Kontzertuaren inguruan / Sobre el concierto...

Organista eta musikagile bezala aritzeaz gain lan handia burutu zuen Jose M^a Beobidek irakasle moduan. Izan zituen ikasleen artean Aita Madina edota Antonio José azpimarratu ditzakegu. Bestalde, bere garaiko musikara irekia egon zen, musika sakroa idazteaz gain idatzi zuen musika profanoa, zarzuela adibidez.

Horregatik nahi izan dugu bere musika gaur egungo estreinaldi batekin uztartu. “Ultreia et Suseia: Desde el Hogar al Fin de la Tierra” obra Antxon González Gabarainek idatzitako “El Gran Caminante” liburuaren gainean idatzita dagoen obra bat da. Liburuaren modura obra hiru mugimenduetan eta Epilogo batean banatuta dago:

- Parte I: Desde Zumaia a Santo Domingo de la Calzada.
- Parte II: Desde Santo Domingo de la Calzada a Vega de Valcarcel
- Parte III: Desde Vega de Valcarcel a Santiago de Compostela
- Epilogo

San Pedro parrokiako organorako idatzitako obra bat da, bere kolore guztiak ateratzeko moduko lana. Obraren iraupena 17 minutu ingurukoa izango da.

Además de ser organista y músico, Jose María Beobide desempeñó un gran trabajo como profesor. Entre sus alumnos, destacan Aita Madina o Antonio José. Por otra parte, Beobide fue un hombre que estuvo abierto a la música de su época, por lo que, además de la música sacra, compuso música profana, como la zarzuela, por ejemplo.

Por ello, hemos querido conjugar su música con un estreno actual. “Ultreia et Suseia: Desde el Hogar al Fin de la Tierra” obra basada en el libro “El Gran Caminante” de Antxon González Gabarain. Al igual que el libro, la obra se divide en tres movimientos y un epílogo:

- *Parte I: Desde Zumaia a Santo Domingo de la Calzada.*
- *Parte II: Desde Santo Domingo de la Calzada a Vega de Valcarcel*
- *Parte III: Desde Vega de Valcarcel a Santiago de Compostela*
- *Epilogo*

Es una obra escrita especialmente para para sacar a relucir todas las notas y colores del órgano de la parroquia de San Pedro y su duración aproximada será de 17 minutos.

Egitaraua / Programa

Scherzo “alla Beethoven”	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Ofertorio en La Mayor	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Andante	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Ofertorio en do menor	J.M ^a Beobide (1882-1967)

Mari Carmen Azpeitia

Ultreia et Suseia*	I. González (1976-)
--------------------	---------------------

*Antxon Gonzalez Gabarainen *El Gran Caminante* liburuak hauspotutako lana

- Parte Primera: Desde Zumaia a Santo Domingo de la Calzada
- Segunda Parte: Desde Santo Domingo de la Calzada a Vega de Valcarce
- Tercera Parte: Desde Vega de Valcarce a Santiago de Compostela
- Epílogo

Iker Gonzalez

Preludio	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Eco del Valle	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Intermezzo sinfónico	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Fantasia en re menor	J.M ^a Beobide (1882-1967)
Final en Re	J.M ^a Beobide (1882-1967)

Santiago Banda

Abuztuak5 igandea

20:00etan Maria eta Jose ikastetxeko aretoan

Sapere Aude Sinfonietta in Concert

"Alzheimerra dutenen eta haien senideen alde eskainita kontzertua"
"Concierto ofrecido a favor de las personas con Alzheimer y sus familiares"



SAPERE AUDE SINFONIETTA (SAS)

Sapere Aude Sinfonietta musikari profesionalen osaturiko elkargune bat da, ibilbide pertsonalari merezi duen balioa eta adorea ematen zaion topagunea, alegia; orkestra bera musika egiteko makina bat bezala ulertuz, eta musika ona zuzenean entzun ondoren, inor axolagabe ez geratzeko nahiarekin sortutakoa.

Sapere Aude Sinfonietta es un punto de encuentro de profesionales, donde se prima, y se le da el valor que merece a la trayectoria y el bagaje personal. Entendiendo la formación orquestal como una máquina para hacer música y que nadie quede indiferente tras escuchar buena música en directo.

www.sapereaudesinfonietta.com

FERNANDO VELÁZQUEZ

Bere ikasketak Getxoko Andrés Isasi, Bilboko Juan Crisóstomo Arriaga eta Gasteizko Jesús Guridi Kontserbatorioan burutu zituen. Deustoko Unibertsitatean Historian Lizentziatua, biolontxelo-jotzailea izan da Santa Cecilia Ganbera Orkestran, Edinburgh University Music Society Symphonic Orchestra-n eta Euskadiko Gazte Orkestran. Madrilgo RCSMan konposizioa ikasi zuen eta gaur egun ezaguna da hainbat pelikulen musikagilea izateagatik, hala nola: Lo imposible, El orfanato, Zipi y Zape y el club de la canica, 8 apellidos vascos, Lope, El secreto de Marrowbone, La cumbre escarlata, Un monstruo viene a verme,...



Ha cursado estudios de música en los conservatorios Andrés Isasi de Getxo, Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao y Conservatorio Superior de Música Jesús Guridi de Vitoria. Es licenciado en Historia por la Universidad de Deusto. Ha sido violonchelista con la Orquesta de Cámara Santa Cecilia, Edinburgh University Music Society Symphonic Orchestra y Joven Orquesta del País Vasco. Estudió composición en el RCSM de Madrid y es conocido, sobretudo, por ser el compositor de bandas sonoras como Lo Imposible, El orfanato, Zipi y Zape y el club de la canica, 8 apellidos vascos, Lope, El secreto de Marrowbone, La cumbre escarlata, Un monstruo viene a verme,...



CARMEN BECERRA JIMÉNEZ

Tarragonan jaio zen 1976an. Tarragonako Kontserbatorio Profesionalean Joana Albiol irakaslearekin ikasi zuen eta Ohorezko Matrikula lortu zuen ikasturte guztietan. Goi Maila aldiz, JL Rodrigo eta Carles Trepát eta José Tomás irakasleekin egin zuen eta ikasketa amaieran aipamen berezia lortu zuen. 1985-86 ikasturtean M^a Luisa Anido ezagutu zuen eta irakaslea eta adiskidea izateaz gain, berak bideratu zuen Tárrega,

Llobet eta espainiar musikaren interpretazioa egitera. Estatu osoan eskaini ditu kontzertuak, baita Polonian, Italian, Txinan, Argentinan eta Txilen ere.

2007an “Opera Tres”-en eskutik bere lehen diskoa argitaratu zuen: “La obra de Luisa María Anido” . Gaur egun interpretazioa eta hezkuntza uztartzen ditu eta Cuarteto Anido-ren kidea da.

Nació en Tarragona en 1976. Estudió en el Conservatorio Profesional de Tarragona con la profesora Joana Albiol, obteniendo Matrícula de Honor en todos los cursos, Premio Extraordinario de Grado Elemental y de Grado Profesional. Realizó el Superior con J.L. Rodrigo y Carles Trepát, recibió clases del prestigioso profesor José Tomás y le concedieron la Mención de Honor de fin de carrera. A lo largo del curso 1985-86 conoció a M^a Luisa Anido con la que inició una larga serie de clases. Todo ello desembocó, por una parte, en una entrañable relación de amistad y por otra parte, es el origen de una laboriosa relación profesional. Aprendió de ella, principalmente, interpretación de Tárrega, Llobet y música española, y sobre todo, se impregnó del carácter, estilo e interpretación de la magistral obra compositora de la gran María Luisa Anido. Ha realizado conciertos en prácticamente toda España así como en Polonia, Italia, China, Argentina y Chile.

En 2007 sale a la luz gracias a “Opera Tres” su primer disco titulado “la obra de María Luisa Anido”. Actualmente compagina la actividad concertista con la pedagógica y es miembro del Cuarteto Anido.

Egitaraua/Programa

kultura@zumaia.eus

Zumaiako Nazioarteko XXXIV. Musika Jaialdia

Sapere Aude Sinfonietta

Carmen Becerra
Fernando Velázquez

Concierto de Aranjuez (J. Rodrigo)
7th Symphony (L. Van Beethoven)

2018-08-05 // 20:00h
Maria eta Jose Antzokia



Abuztuak6 astelehena

22:00etan Oxford aretoan

Zinea + musika: Iñar Sastre

City Girl, F.W Murnau (1930)



F.W. Murnauk Hollywooden errodatutako azken filma da eta ez da harritzekoa, kalapita ugari izan baitzituzten zuzendariak eta Fox estudioak. Soinua zuten pelikula berrien arrakasta ikusita, estudioak azken orduan dialogo kaskarrak eta eszena barregarriak erantsi zizkion pelikula mutu izan behar zuenari, eta halaxe ezagutu zuten garai hartako ikusleek.

Zumaian ikusiko duguna ordea, Murnau handiak hasieratik buruan zuen bertsioa da, zinema mutuaren gailurretako bat. Film mutua izango da bai, baina zuzenean musikatua, eta horretaz arduratuko da Iñar Sastre, hainbat herrialdetan jo duen pianista-inprobisatzailea.

Errodajea bezalaxe, filma erromantze moduan hasi eta drama bilakatuko da. Lem gaztea Chicagora joango da bere familiaren etxaldeko garia saltzera. Bertan, Kate kalekumearekin maitemindu eta baserrira itzuli aurretik harekin ezkonduko da azkar batean. Behin etxera itzulita, Lemen amak onartuko du neska gazte modernoa, baina aitak Kate diruagatik ezkondu dela usteko du. Segalariak baserrira iristean oraindik eta gehiago korapilatuko dira gauzak Katekin.

La última película rodada por F.W. Murnau en Hollywood combina el romance y el drama. El joven granjero Lem acude a Chicago a vender la cosecha, y en la gran ciudad se enamora de Kate, una camarera con la que se casa en sólo dos días. Cuando vuelve con ella a la granja, la mentalidad moderna de Kate choca con el conservador padre de Lem, convencido de que solo busca el dinero de su hijo.

Una de las obras cumbres del cine mudo, que contará con el acompañamiento en directo de Iñar Sastre, pianista y compositor apasionado de la improvisación musical.



www.isastre.com

Iñar Sastre



Gaztetatik musikakazaletua, Iñar Sastrek goi mailako musika ikasketak burutu zituen Musikenen (pianoa, ganbera musika, ahots akonpainamendua) eta Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse de Paris-en (inprobisazioa, harmonia eta kontrapuntua, moldaketak, dantza akonpainamendua). Era berean, musika klasikoko ikasketak, jazz piano ikasketekin osatu zituen Parisko Ravel Kontserbatorioan.

Musika klasikoa, jazz-a eta herri musika oinarri izanda, bere lana, batez ere, musika beste diziplina artistiko batzuekin uztartzean oinarritu da, bereziki arte bisual eta eszenikoarekin.

Iñar Sastre iaztik ezaguna dugu Zumaian, 2017ko Jaialdian MugMus Laborategiarekin eskainitako emanaldiaren musika arduraduna izan baitzen. Aurten berriro errepikatzen du Zumaian, oraingoan, film mutu bati ahotsa emanez.



Apasionado desde su juventud de la música en su globalidad, Iñar Sastre realiza los estudios superiores de música en Musikene (piano, música de cámara, acompañamiento vocal) y en el Conservatoire National Supérieur de Musique et de Danse de París (improvisación al piano, armonía y contrapunto, arreglos, acompañamiento coreográfico). Complementa sus estudios de

música clásica con los estudios de piano jazz en el Conservatoire Ravel de París.

Tomando como fundamento la música clásica, el jazz y la música popular, su trabajo sobre todo se ha centrado en combinar la música con otras disciplinas artísticas, especialmente todas las artes visuales y escénicas.

El pasado año pudimos contar con su colaboración en la adaptación callejera realizada con el Laboratorio Mug Mus, donde Sastre fue el encargado de poner música al espectáculo. Este año volveremos a contar con su talento, esta vez, dando voz a una película muda.

Abuztuak 7 asteartea

20:00etan Oxford aretoan

Argentina en mi guitarra, Juan Falú

“Nire sorterriko musika herrikoia mapa aberatsa eta askotarikoa da. Gure musikei tradizioa eta modernotasuna darie, lautada, mendi tontor, aran, oihan, basamortu eta ibaietan barrena. Nire gitarra eta kantuen bitartez, nire sorterriko itzulpenik onena eskaini nahi dizuet”

“Vengo de un país cuyo mapa musical folclórico es nutrido y diverso. Por llanuras, montañas, valles, selvas, desiertos y ríos, fluyen nuestras músicas entre tradición y modernidad. Espero brindar desde mi guitarra y mis canciones la mejor traducción posible de mi tierra”

www.juanfalu.com.ar



Juan Falú gitarra-jotzaile eta konpositore autodidakta Argentinako musika herrikoia ordezkaritza gorenetakoa da. Bere ibilbide luzean sari garrantzitsuak jaso ditu, tartean Gardel saria eta 2000. urteko Premio Nacional de la Música. Argentinako musika herrikoia hedatzeko ahaleginean, irakasle ere aritzen da unibertsitate eta kontserbatorioetan, eta lizentziatura espezializatuak bultzatu ditu musika herrikoia, folklorea eta tangoa lantzeko.

Sortu dituen kantuek Argentinako musikaren sustraietan sakondu eta eremu berrietara daramatzate, eta haietako asko klasiko bihurtu dira. Gitarra jotzeko orduan ere, nabarmena da hain ondo ezagutzen dituen erroetatik abiatuta ezusteko norabideak hartzeko joera, inprobisatzeko gaitasun itzela baitu.

Azken 30 urteetan Amerika, Europa, Asia eta Afrikako dozenaka herrialdetan eman ditu kontzertuak, eta disko ugari argitaratu ditu

Argentina, Frantzia, Belgika, Mexiko eta Costa Rican.

Juan Falú es músico de formación autodidáctica, considerado como referente fundamental de la música argentina, en su doble condición de compositor e intérprete. Entre los numerosos galardones que ha recibido en su larga trayectoria, destacan el Premio Nacional de Música del año 2000, y el Premio Gardel. En el ámbito académico, además de ejercer la docencia, ha impulsado la creación de títulos especializados en música argentina, folklore y tango en la Universidad de San Martín y el Conservatorio Manuel de Falla

Sus obras para guitarra recrean las raíces musicales argentinas, siendo además creador de canciones que integran el repertorio de destacados intérpretes del folklore argentino. Como intérprete, Juan Falú revela un profundo conocimiento de las músicas de su tierra, proyectándolas desde la raíz hacia nuevos horizontes y con una reconocida capacidad de improvisación.

Ha ofrecido conciertos en más de treinta países de las Américas, Europa, Asia y África, durante 30 años ininterrumpidos.

Abuztuak 8 asteazkena

Donostiako Musika Hamabostaldia

20:30ean Parrokian

Italia 1600, Rakel Andueza & La Galanía

La Galanía



Raquel Anduezak eta Jesus Fernández Baenak 2010ean sortu zuten talde hau musika barrokoa interpretatzeko asmoaz, estilo musikal eta errepertorio horretan espezializaturiko espainiar eta atzerriar musikari hoberenekin. Taldekideak mundu osoan famatuak diren orkestra eta talde ospetsuetako kideak dira, hala nola: Hespèrion XXI, Al Ayre Español, Sevillako Orkestra Barrokoa, Private Musicke, Orchestra of the Age of the Enlightenment, L'Arpeggiata....

Raquel Andueza sopranoa da eta taldearen ardatz nagusia da. Mundu osoko auditorio eta jaialdi handietan aritu dira: Madril, Berna, Berlin, Kolonia, Paris, Brujas, Palma de Mallorca, Mosku, Helsinki, New York, Donostia, Innsbruck, Sevilla, Chicago, Brusela, Lyon, Panamako Hiria...

“Yo soy la locura” izeneko diskoa izan zen, 2011n, taldeak argitaratutako lehen lana, eta honek FestClásica saria eskuratu zuen. Ondoren, “Alma Mia” eta “Pegaso” izeneko diskoak ere argitaratu dituzte eta horiekin ere kritika ezin hobekak eta hainbat sari eskuratu dituzte.

Fundada en el 2010 por Raquel Andueza y Jesús Fernández Baena, su finalidad es interpretar música barroca, tanto del siglo XVII como del XVIII, en base a unos cuidados principios historicistas y apostando por colaborar con los mejores músicos tanto españoles como extranjeros, todos ellos especializados en este repertorio. Sus miembros forman parte de orquestas y grupos prestigiosos a nivel mundial, como Hespèrion XXI, Al Ayre Español, Orquesta Barroca de Sevilla, Private Musicke, Orchestra of the Enlightenment, L'Arpeggiata...

Como eje central del grupo cuentan con la soprano Raquel Andueza. El grupo ha actuado en prestigiosos auditorios y festivales de todo el mundo: Madrid, Berna, Berlín, Colonia, París, Brujas, Palma de Mallorca, Moscú, Helsinki, Nueva York, San Sebastián, Innsbruck, Sevilla, Chicago, Bruselas, Lyon, Ciudad de Panamá...

Su primer disco “Yo soy la locura”, editado en el 2011, recibe críticas excepcionales y el Premio FestClásica. Posteriormente han editado “Alma Mia” y “Pegaso”, recibiendo asimismo excelentes críticas y varios premios.

Egitaraua / Programa

ITALIA 1600

Perché se m'odiavi	ClaudioMonteverdi(1567- 1643)
Viver in questo stato	Anónimo (s.XVII)
Vieni, vieni	FrancescoCavalli(1602- 1676)
Bella mia	Anónimo (s.XVII)
Passacaglia	G.G.Kapsberger(1580- 1651)
Un sol bacio per pietà	DomenicoAnglesi(1610/15-1674)
Voglio di vita uscir	Claudio Monteverdi
Oblivion soave	Claudio Monteverdi
Toccata arpeggiata	G. G. Kapsberger
Si dolce è'l tormento	Claudio Monteverdi
Lamento della Ninfa	Claudio Monteverdi
Cruda signora	Anónimo (s.XVII)

LA | GALANÍA
RAQUEL ANDUEZA 

PABLO PRIETO, violín

MANUEL VILAS, arpa doppia

JESÚS FERNÁNDEZ BAENA, tiorba

Abuztuak 9 osteguna

1. 12:30ean Mari Kalean

Faroese Clarinet Choir eta Faroese Saxophone Choir



2001ean Danimarkako Funen hiriko Broby Clarinet Choir taldeak Faroe uharteak bisitatzeko eginiko bidaian sortu zen talde berri hau osatzeko ideia. Izan ere, bisitaldi horretan, Faroe uharteetako Musika Eskolako hainbat klarinete ikaslek aipatu taldearekin proiektu batean parte hartzeko aukera izan zuten eta esperientzia horren ondoren ikasle horiek, Faroe uharteetako Klarinete taldea (FCC) sortu zuten 2002ko otsailean. Gaur egun, FCC-a Faroe uharteetako Musika Eskolako egungo klarinete ikasle eta ikasle ohiek osatzen dute. Helburua da

Faroe uharteetako klarinete-jotzaile guztiak talde baten pean batzea.

Klarinete-familiaren musika tresna ia guztiak erabiltzen ditu FCC-k: ohiko klarineteaz gain Eb, Eb Alto, Bb Bass, Eb eta Bb Contra Bass Clarinet ere bai. Horrez gain, hainbat musika estilo jorratzen ditu: musika eskandinaviarra, musika klasikoko transkripzioei buruzko interes bereziarekin, jazz, musika pop zein herrikoia... Taldearen burua Peter Riis-Jensen Faroe uharteetako Musika Eskolako irakaslea da.

Urteetan zehar, FCC-k Faroe uharteetako ekitaldi desberdinetan parte hartu du: kontzertuak, jaialdiak eta eliz-funtzioak bereziki. Horrez gain nazioarteko hainbat herri eta hiriburutan izan dira kontzertuak eskaini edota jaialdietan parte hartuz: ISME-Jaialdia (Musika-Heziketarako Nazioarteko Elkarte) Jyväskylä-ko (FI) Musika Jaialdia...

2018an Euskal Herrian dira hainbat kontzertu eskainiz eta oraingoan Zumaiara gerturatu dira euren musika ezagutarazteko asmoz.

Quando en 2001 Broby Clarinet Choir de Funen, Dinamarca, visitó las Islas Feroe, varios estudiantes de clarinete de la Escuela de Música local participaron en el proyecto. De ahí surgió la idea de fundar Faroese Clarinet Choir (FCC), que tomó forma en febrero de 2002. La FCC está compuesta principalmente por antiguos y actuales estudiantes de clarinete de la Escuela de Música de las Islas Feroe. El objetivo es formar un campo de batalla para todos los clarinetistas en las Islas Feroe: principiantes y avanzados, niños, jóvenes y mayores, dentro y fuera de la escuela de música.

Dentro de la familia de clarinetes, FCC emplea clarinetes Bb, Eb, Eb Alto, Bb Bass, Eb y Bb Contra Bass Clarinets. Ofrece una selección musical versátil: folklore, con especial interés por la música escandinava, música clásica, jazz y música pop... El conjunto está dirigido por Peder Riis-Jensen, profesor de la Escuela de Música de las Islas Feroe.

FCC ha participado en numerosos conciertos, festivales y actos eclesiásticos en las Islas Feroe. Además de ello ha visitado numerosas ciudades a nivel internacional: Festival de Música y Cultura NUMU en Jyväskylä, Alandía Jazz Festival, XI Märjamaa Folklore Festival... En 2018 ha visitado ya el País Vasco y en esta ocasión vuelve para visitar Zumaiara y dar a conocer su música en nuestro municipio.

2. 20:00etan Odietan

Meeting Point, Ertza



ERTZA, 2004. urtean sortu zen Asier Zabaleta (Ezkió, Gipuzkoa 1.972) dantzari eta koreografoaren zuzendaritzapean, artearen diziplina anitzak dantza garaikidearekin nahastuz, sorkuntza ezberdinak sustatzeko helburuarekin.

ERTZA-k bere ikuskizunekin, gizaki eta gizartearen kontraesanen inguruan galderak plazaratu nahi ditu, eta espazio publikoetarako, nahiz aretoetarako sorturiko produkzioen bitartez, ikusle

berriak bilatu.

Sortu zenetik, ERTZA-k ondorengo herrialdeetan erakutsi ditu bere lanak: Txina, Filipinak, Brasil, Peru, Costa Rica, El Salvador, Mexico, Israel, Errusia, Lituania, Luxemburgo, Suitza, Alemania, Frantzia, Italia, Grezia, Polonia, Portugal eta Espainia.

Sorkuntza arloan eginiko lanez haratago, ERTZA-k hainbat formakuntza eta sentsibilizazio proiektu jarri ditu martxan.

Horrez gain, dantza taldeak hainbat sari irabazi ditu bere ibilbidean zehar, azkena, Kaleko ikuskizun onenari **2018 Max saria “Meeting Point”** ikuskizunarekin, zeinak 2017an Euskadiko kale ikuskizun onenaren saria ere irabazi zuen, Leioako “2017 Umore Azoka” jaialdian. Eta hori izango da, hain zuzen, Zumaian eskainiko duten ekitaldia.

ERTZA nace en 2004 bajo la dirección del bailarín y coreógrafo Asier Zabaleta (Ezkió, Gipuzkoa 1.972), con el objetivo de abrir un nuevo espacio donde poder crear libremente a través de la interacción de diferentes disciplinas artísticas junto con la danza contemporánea.

Las obras de ERTZA plantean cuestiones sobre las contradicciones humanas y sociales. Invitan al público, de una forma lúdica y estética a tomar una posición activa frente a lo que está viendo, y a reflexionar en torno a temas de cotidiana actualidad.



Desde su creación, ERTZA ha presentado sus trabajos en países como: China, Filipinas, Brasil, Perú, Costa Rica, El Salvador, México, Israel, Rusia, Lituania, Luxemburgo, Suiza, Alemania, Francia, Italia, Grecia, Polonia, Portugal y España.

Además de su trabajo en la producción de obras, ERTZA realiza varios proyectos paralelos de formación y sensibilización.

*Asimismo, a lo largo de su andadura, ERTZA ha ganado múltiples premios, el último el **Premio Max 2018 al mejor espectáculo de calle con la obra “Meeting Point”** que es el mismo que representarán en Zumaia y que en 2017 también obtuvo el premio al mejor espectáculo de Euskadi en “Umore Azoka 2017” de Leioa.*

Meeting Point

- **ZUZENDARITZA:** Asier Zabaleta
- **KOREOGRAFÍA:** Asier Zabaleta interpretatzaileen laguntzarekin
- **INTERPRETATZAILEAK:** Thiago Luiz Almeida, Caio Henrique de Souza
- **MUSIKA:** Bosques de mi mente

Sinopsia



Herrialde berdinetik, baina elkarren artean urrun dauden bi hiritatik datozen bi gaztek, 8.000 kilometroko “putzua” gurutzatu behar izan dute eta urte batzuk pasatzen utzi, planetaren beste punta batean topatu, elkar ezagutu, eta elkarren loturak aurkitzera iristeko. Eta konturatzeko nola askotan, gure bizitzako labirintoa osatzen duten bideak, besteenarekin gurutzatzen diren, eta hortik aurrera, persona berriak bilakatzen garen. Nola dantzarekiko pasioak agintzen duen leku berri batetan, Break Dance-a eta Hip Hop-a bezalako lengoaiak, dantza garaikidetik datorren hirugarren pertsona baten begiradapean, zera berri bat sortzeraino nahasten diren. Defini ezina den zera berri bat, baina biak (...edo hobe esanda hiruak) definitzen dituen.

MEETING POINT-en, jendeak topo egiten duen toki horietaz mintzatzen gara, eta hori gerta dadin gurutzatu behar diren “putzuez” eta itxaron behar den denboraz.

Sinopsis

Dos jóvenes que proceden del mismo país pero de ciudades muy lejanas entre sí, han tenido que cruzar un charco de 8.000 kilómetros y dejar pasar varios años hasta encontrarse en el otro extremo del planeta, conocerse y descubrir todo lo que les une. Descubrir cómo los caminos del laberinto de la vida, a veces se entrecruzan y desde ese preciso instante nos impiden seguir siendo los que éramos. Descubrir ese lugar donde impera la pasión por el baile, y donde del cruce de lenguajes como el break-dance y el hip-hop surge algo nuevo bajo la mirada de una tercera persona que viene de la danza contemporánea. Algo nuevo e indefinido, pero que al mismo tiempo define a los dos (...o a los tres).

MEETING POINT habla de los lugares donde se encuentra la gente, de los charcos que hay que cruzar para ello y del tiempo que hay que esperar.

Abuztuak 11 larunbata


20:00etan Amaia plazan, Saregile plazan eta Eusebio Gurrutxagan

Growing Young, Une-Dantzaz

- **KOREOGRAFIA:** Janis Claxton
- **JANTZIAK:** Janis Claxton eta Marina Bestard
- **MUSIKA:** Mulatu Astatke, Jabier Muguruza, Mikel Azpiroz eta Anthony and the Johnsons
- **ZUZENDARI NAGUSIA:** Adriana Pous

“Ikuskizun ibiltaria izango da. 20 minutuko 3 saioa eskainiko dira: lehena Amaia plazan, bigarrena Saregile plazan eta azkena, Eusebio Gurrutxagan”

“Será un espectáculo itinerante con tres sesiones de 20 minutos de duración cada una. El espectáculo comenzará en Amaia plaza, continuara en Saregile plaza y concluirá en Eusebio Gurrutxaga”



Janis Claxton australiarra nazioarte mailan oso ezagunak diren ‘Pop Up Duets’ eta ‘Enclosure humans’ piezen sortzailea da. Oraingo honetan Dantzaz-entzat lan egin du lehen aldiz, Edinburgoko DanceBase-k (Europako dantza etxerik famatuenetarikoa) eta Dantzaz-ek sinatutako lankidetzaz hitzarmenari esker.

UNE da bere proiektuaren izenburua eta Donostia Kulturarekin elkarlanean, Egia auzoan eginiko proiektu batean du sorburua. Kaleko espazioetan sortu daitezkeen erlazioak, arkitektura eta egunerokotasuneko erritmoak izan ziren sorkuntzaren ardatz.

Ustekabean ikuslea piezaren parte bihurtzen duten pasarte motzak dira, kalean dagoen jendea ezusteko ikusle edota eszenografiaren parte bilakatzen dutenak alegia.

La australiana Janis Claxton, autora de los conocidos ‘Pop Up Duets’ y de aclamados proyectos como ‘Enclosure humans’, firma su primera obra para Dantzaz. Y lo hace gracias al acuerdo de colaboración que suscribieron la compañía vasca y DanceBase, una de las más afamadas casas de la danza europeas, con sede en Edimburgo.

‘UNE’, título de su proyecto, surgió a partir de un singular proyecto de laboratorio artístico desarrollado en el barrio donostiarra de Egia con la colaboración de Donostia Kultura. Las relaciones de la danza con los espacios urbanos, con su arquitectura y con los ritmos de su vida cotidiana fueron el punto de partida para una creación que propone una serie de viñetas cortas, pasajes narrados que convierten al espectador en actor accidental de la historia o parte de la escenografía.

